

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Nobela fragmentario bat, zati-zati eginda porturatzen

A ciegas (Itsu-itsuan). Claudio Magris. Anagrama, 2006.

NOBELAKO aurreneko hitzak 1988an idatzi ziren arren, 2005era arte ez zuen argia ikusi *A ciegasek*. Magrisek elkarrizketaren batean azaldu du zergatia: "Istorio hau mendearen barrunbeetara bidaia da, eta egitura arazo erraldoiak ditu istorio asko bakarrean bildu nahi izateagatik: itsasoaz asko hitz egiten duen gizon bat, hainbeste abentura, hainbeste istorio... Hain zuzen, nire arazoa hori guztia batera jartzea zen, eta horregatik behar izan zituen hainbeste urte liburuak".

Idazteko hartu zuen denbora luzeagatik baino ez bada ere, azaletik pretentsio handiko obra dirudi. Eta nobelan aurrera egin ahala konfirmatzen da ustea: bizkarrezurrik gabeko testua da, lotu gabeko puskaz osatua eta bi buruko pertsonaia nagusiaren bidez kontatua –narratzailea aldi berean da Salvatore Cippico komunista zaharra eta XIX. mendeko Jorgen Jorgensen itsasgizona–. Iraultza eta amodio frustratuen argazkiak eskaintzen ditu kontalariaren letania luzeak. Geografikoki ere, zentrorik ez: Islandiatik Australiara, Italiatik, Yugoslaviatik,

Ingalaterratik, Espainiatik pasaz, inon heldulekurik aurkitu gabe; erdiko kapitulu laburretan estilo lirikoagoan idatzita badago ere, orokorrean testu kaotiko samarra da.

Printzipioz, gustatu egiten zaizkit linealak ez diren kontakizunak, egitura fragmentarioak, pertsonaia eklektikoak, parte-hartzea eskatzen didaten nobelak. Baina behin liburua bukatuta, halako hutsune bat geratu zait *A ciegasekin*; sentsazioa, irudi gehiegi eskaini dizkidatela bata bestearen atzetik, eta mamirik, aldiz, batere ez. Gainera, pasarte batzuetan moralkeria eta autoflagelazio post-komunista gehiegizkoak iruditzen zaizkit –kontu ideologikoa, noski–.

Agian asmoa zen handiegia, eta abiapuntutik zen ezinezkoa liburua portura osorik iristea. Brankako irudia eta ohol batzuk iritsi dira; gainontzekoa, zati-zati eginda, itsasoak irentsi du. Menturatu izana eskertu beharko zaio Magrisi; hurrengoan beharbada?



Claudio Magris.

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

INDEPENDENTZIA
ASTERO IKUSTEN DA

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Taloez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitate: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

Aukeratu ongietorri oparia



"Kirolaz badakit"
mahai-jolasa



"888 txiste"
liburua



"Txoriak txori"
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2009ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Iparr Euskal Herrian

argia